

Kultura

Iñigo Rokek irabazi du itzulpengintzako Euskadi saria:

“Bakarlanera ohituta, ezkututik ateratzearen parekoa izan da” > 14



Faustegoienako eta San Rokeko etxebizitzak esleipenetan 409 pertsonak ezetza eman dute

Babes ofizialeko etxebizitzak ez dute esperotako erantzuna jaso. Faustegoienako 111 uko egon dira, eta San Roken 298.

Krisi ekonomikoa medio, Durangon abian jarritako babes ofizialeko etxebizitzak saltzeko arazoekin dabilta. Faustegoienako etxeetan ez dute salmenten %90 lortu. 111 pertsonak ezetza eman dute, etxebizitza esleitu eta gero. 25 lagunek osatzen dute bazkide kooperatiba, eta irtenbide baten bila dabilta udalagaz. San Rokeko promozioaren kasuan, 298 pertsona atzera bota dira, nahiz eta erraztasunak eman. 2012an hasi ziren 144 etxeak eraikitzen, eta oraindik 20 bat salgai daude. > 3



Marta Cárdenas, Durangoko Azoka kolorez janzten

Margolari donostiarrek 49. Durangoko Azoka iragartzen duen kartela diseinatu du. Tradizio mexikarreko margolan batean inspiratu da. > 11

Lehior Elorriaga

Tokiz aldatu gara (betiko dendatik 5 metrora)



Barrenkalea, 28 | 946 817 918

Atxondo > 2

Barraskiko etxeak okupatu dituzten lau gaztek epailearen aurrean deklaratu dute

Durangaldea > 4

Elkarretaratzea Abadiño eta Durangoko erasoen aurrean

Otxandio > 6

Errementarien sasoiko sukaldea sortu dute erakusketa baterako

Zornotza > 9

Ahotsak proiektuaren emaitzak ezagutarazi dituzte

Herririk herri

Barraskilore: “Arazoa konpontzeko pausoak ematen badira, ez dugu trabarik jarri nahi”

Barraskiko etxebizitzak okupatu dituztenetako lau gaztek epailearen aurrean deklaratu dute

ATXONDO Joseba Derteano Barraski izenez ezagutzen den inguruan geldi dago bost eraikin eta 52 etxebizitza aurreikusten dituen proiektua. Urteak daramatza geldi. Krisia heldu zenean, Norvisa promotoreak bertan behera utzi zituen eraikuntza lanak, eta hainbat kalteu eragin zituen: etxebizitzak egiteko dirua aurreratu zuten norbanakoak, hornitzaileak, Atxondoko Udala... oraindik 300.000 euro zor dizkio udalari. Bitartean, iaz gazte batzuek ia amaituta dagoen etxe huts horietako bat okupatu zuten. Harrezkero han bizi dira. Baina duela hil bi Norvisak salatu egin zituen: okupazio delitua egotzita, lau gazte identifikatu zituzten, eta joan zen barikuan epaitegian deklaratu zuten.

Barraskilore mugimenduko gazteek prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, “Norvisa promotoreagaz izan ditugun bi batzarretan argi utzi dugu gure jarrera eta akordioak bilatzeko apustua”. Adierazi dutenez, ez dute asmorik “hasi daitezkeen obrak oztopatzeke”: “Ez dugu trabarik jarri nahi, arazoa konpontzeko benetan pausuak ematen badira. Bitartean, gure beharrak direla medio, etxea erabiltzen jarraituko dugu”. Arazoa konpontzeko beharrezko ikusten dute, besteak beste, “herriari, etxeak erosi dituzten kideei eta gainontzekoei zor dieten dirua bueltatzea”. Etxe horiek Sarebe-ren (diru publikoz kudeatutako bankoa) esku geratu di-

rela diote eta “Sarebek hainbat herrialdetan egindako operazio espekulatzailerak” salatu dituzte. Barraskiko etxe bloke hori-lau etxebizitza ditu- iaz okupatu zuten. Orduan adierazi zuten, ekintza “garden, publiko eta baketsua” egin gura zuten: “Espazio kolektibo bat sortu nahi dugu, auzotar guztiek etxebizitza duina izateko aukera eduki dezagun bertan”.

Ordukoa tankera horretako bigarren ekintza izan zen. Izan ere, hilabete lehenago, Durangoko Salesen komentu zaharra okupatu zuen lagun talde batek,

300.000
euro zor dizkio oraindik
Norvisa promotoreak
Atxondoko Udalari

antzeko helburuekin. Hilabete bertan eman ostean, eraikina hustu egin zuen Ertzaintzak.

Udala negoziatioetan

Udalaren eta Norvisaren artean hainbat batzar izan dira azken urteotan, baina Norvisak ez du oraindik zorrik kitatu. Udalarena da Barraskiko etxebizitzaren inguruko urbanizazio lanak egiteko ardura, baina Norvisari dagokio ordaintzea. Udaleko diru poltsatik diru kopuru bat aurreratu, eta lanekin hasi zen udala; baina, ondoren, Norvi-



Herrigunearen erdialdean dagoen Barraski izeneko eremuan daude amaitu gabeko etxebizitzak.

sak ez zion ordainketarik egin. Hori izan zen urbanizazio lanak geratzeko arrazoia. Rosa Elizburu alkatearen esanetan, “bere sasoian 120.000 euro ordaindu zituzten, baina harrezkero ez dugu ezer jaso; beti diote proiektuagaz aurrera jarraitu gura dutela eta berehala ordainduko dutela, baina 2012. urtetik hona horrela gabiltza”.

Udalak hainbat urte eman ditu udal kontuetako zenbakiak orekatzeko: “Zor zaiguna itzuliko diguten segurtasunik ez badugu, ezin dugu arriskatu”. Hala ere, bitartean Barraski ingurua urbanizatzen dabilta. “Baserria berriztuta dago, baimen guztiekin; azpiegiturak ahalbidetzea bidezkoa iruditzen zaigu”. Egoera bideratzeko etxebizitzak enbargatzeko pausoak hasi dituztela ere adierazi dute.

Barraskiko etxebizitzaren proiektua aurrera ateratzeko “ahaleginak egiten” jarraitzeko asmoa du udalak Elizbururen esanetan: “Egin ahal den guztia egiten gabiltza”.

INKESTAK



Nekane Andrinua

Zer iritzi duzu Barraskiko etxeen egoerari buruz?

Etxebizitzak egiten hasi ondoren, enpresa eraikitzaileak alde egin zuen, hori da herrian komentatzen dena. Herri erdian amaitu gabeko etxebizitzak horrela ikustea ez da polita. Batzuek udalari egozten diote errua; nire ustez, ez da udalaren errua, etxeak ez direlako bere jabetzakoak.

Zer iruditzen zaizu etxe batzuk okupatu izana?

Eurenak ez diren etxeetan sartzeak badu bere zera, baina ikusi behar da gazteriak gaur egun etxeak erosteko zer aukerak duen. Gazteen egoera ere kontuan hartu behar da.



Conchi Rodriguez

Zer iritzi duzu Barraskiko etxeen egoerari buruz?

Nik ezagutzen dut iturgin bat etxebizitza horretarako dirua ipini zuena, eta enpresa eraikitzailearentzat iturgin lanak egin zituen. Aurreratu zuen dirua ez dakit erreperatu duen, baina bada- kit obra horietan egindako lanagatik ez duela ezer jaso. Hori ez zait bat ere justua iruditzen.

Zer iruditzen zaizu etxe batzuk okupatu izana?

Niri ez zait ondo iruditzen etxeak okupatu izana. Herrian badago jendea beharri- zanean, eta hilero ordaintzen dituzte euren zergak.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko urriaren 17a,
12. urtea - 562. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso
Armendia, Amaia Huarte Basabe,
Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri
Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri
eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes, Lehiar Elorriaga.

Faustegoienako etxeetako bazkideak, obraren esperoan

Faustegoienako etxeetan ez dute salmenten %90 lortu; 111 uko egon dira jada



Faustegoienan lur mugimenduak badaude, baina etxeak eraikitzeke datarik ez oraindik.

DURANGO M. Onaindia

Joan zen hamarkadan babes ofizialeko etxebizitzaren egitasmoak bultzatu zituzten herririk herri udalek eta Eusko Jaurlaritzak. Etxe eskaintza eta eskatzaile kopurua handia zen. Baina krisi ekonomikoak eztanda egitean, egoera guztiz aldatu zen. Zozketetan etxea tokatu zitzaizkien askok ez zuten banketxearen mailegua lortu, eta etxeari uko egin behar izan zioten. Gero, itxaron ze-

rrendetan egondako askori ere gauza bera gertatu zitzaizkien. Horrela, zenbait proiektu atzerapena eduki dute, eta Durangoko Faustegoienakoa da kasu argienetakoa bat. Etxeak kooperatiba erregimenean hartu zituzten bazkideak obraren esperoan daude, eraikitzen hasteko beharrezkoa den salmenten %90 ez delako lortu oraindik.

2012ko uztailan onartu zuen udalbatzak Faustegoienako

proiektua, babeseko 118 etxebizitza dituenena. Baina eskatzaile faltagatik, proiektua bitan zatitzea erabaki zuten, lehenengo 70 etxe egiteko. Zozketa egin zuten, baina ezin etxeak saldu; promozioa Bizkai osora zabaldu zuten, eta gauza bera. Dagoeneko 111 uko egon dira.

25 lagunek osatzen dute bazkide kooperatiba. Lehenengo faseko hiru etxe blokeetatik bi eraikiko dituzte hasieran, 42

etxe. Udalak zazpi hartuko ditu alokairuan emateko, baina, hala ere, beste sei saldu behar dituzte obrari ekiteko.

Egoera ikusita, batzarra egin dute bazkide, udal ordezkari eta etxe sustatzailekoek. Ateratako ondorioa hau da: udalak beste hiru etxe bere gain hartzea, saltzeko edo alokatzeko, eta sustatzaileek hiru etxeren balioa ez kobratzea eraikuntza amaitu arte. Ondorio horrek, edozelan ere, udalbatzatik pasa beharko luke aurrera egiteko.

San Roken 298 uko

Eskatzaileen uko ugari eduki dituen beste promozio bat San Rokekoa da. 298 lagunek esan dute ezetz. 2012an hasi ziren 144 etxeak eraikitzen, eta oraindik hogei bat salgai daude. Bidean, baldintzak malgutu behar izan dituzte; Etxebiden alta emanda egotea ez da beharrezkoa, adibidez. Salmenta zuzena darabilte, eta abendu honetan etxeen eskriturak egiten hasi gura dute.

Atzera jota, Errotaritxuenako 58 etxeetarako ere ukoak egon ziren, baina 2012an lortu zuten etxeak ematea. Durangaldeari dagokionez, Abadiñoko Muntzaratz auzoko etxeetan %50 ezezko baino gehiago egon ziren, eta oraindik etxeren bat falta da saltzeko.

Babeseko etxebizitzak jabetzan saltzea espero baino gehiago kosta da. Faustegoienako etxeetan hamasei alokairurako izango dira, eta EH Bilduk kopurua handitzea eskatu zuen, alternatiba moduan. Jabetzan hartu dituztenak, oraingoz, etxeak eraikitzeke zain daude.

Eguneko zentroa zabaldu dute buruko gaitza dutenentzat

DURANGO M.O.

Buruko gaitza dutenentzako zentro berriaren inaugurazioa egin zuten joan zen barikuan, Durangon. Avifes erakundeak, Aldundiak eta BBK-k bultzatu dute Muruetatorren zabaldu den zentroa. Miguel Angel Núñez Avifes erakundeko presidentek jendearen ikuspegia aldatzeko beharra azaleratu zuen inaugurazio ekitaldian: “Gaixotasun hau beti egon da estigmeiz inguratua. Jendeak buruko gaitza indarkeriagaz lotzen du, eta uste du pertsona horiek bakartuta egon behar dutela”. Horren aurrean, psikiatrikoetatik kanpora egoteko apustua egiten dutela azaldu zuen, beti ere egonkor egon badaitezke. “Gizarteratzen saiatzen gara, eskubideak dauzkaten pertsonak direlako”. Gainera, zaintza psikiatrikoa ere ematen diete zentroetan.

Miren Zamakona da Avifesez Durangaldean daukan bazkideetako bat. Azaldu zuen orain arte Zornotzan egon dela zentroa, baina, lekua txiki geratu denez, aldatzea erabaki dutela. Horrela, hamar plaza gehiago edukiko ditu. Tailerrak, irteerak, taldeko terapia eta sukaldaritza ikastaroa egingo dituzte, besteak beste. Familientzat ere programa bereziak antolatuko dituzte, gaiak ikasi eta gero, sendeari hobeto laguntzeko.

Mozorro Eguna dator jaien amaierako asteburu beroan

Bihar, 18:30ean, mozorro desfilea egingo dute 18:30ean, Madalenatik hasita

DURANGO M.O.

San Fausto jaietako azken txanpan sartuko dira gaur durangarrak. Asteburu beroa dute aurretik, jai giroagatik eta eguraldiagatik. Bihar Mozorro Eguna izango dute, eta kolore berezia hartuko dute kaleek. 18:30ean

mozorro desfilea egingo dute Madalenen hasita. *Udazkeneko olinpiadak* da txosnagunean proposatu duten gaia. Gainera, Elkartasun Eguna ere ospatuko dute eremu horretan.

Natxo Martínez zinegotziak esan du jende asko egon dela

lehenengo asteburuan: “Eguraldia ona denean, jendea ekitaldietara animatzen da”. Balorazio positiboa egin du, eta ostalariak ere pozik ikusi ditu. Asteburu honetan gauzak bide beretik joatea espero du.

Jaietako gertaera txarren artean, astelehenean emakume batek salatu zuen sexu erasoa nabarmendu behar da. Udalak erasoa gaitzetsi, eta emakumea babestu du.

Barraketarako txartelak

Bestalde, EH Bilduk barraketarako txartelak banatu ditu Facebooken bitartez. Dioenez, udal taldeei sarrerak ematen dizkiete, eta eurek jasotako 190ak herritarren artean banatu dituzte. Hurrengo urtean alderdi guztiek gauza bera egiteko eskaera ofizial bat sartuko dute udalean.



Joan zen zapatuan jolasak egin zituzten Gazte Egunaren harira. Ainara Petite.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

LANGABETUENTZAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

JANGELAKO ZERBITZARIA

Iraupena: 140 ordu.
Egutegia: azaroaren 3tik abenduaren 22ra arte.
Ordutegia: 16:00-20:00, astelehenetik ostiralera.

TOKIKO TURISMO -PRODUKTUAK eta -ZERBITZUAK

Iraupena: 180 ordu.
Egutegia: azaroaren 3tik abenduaren 23ra arte.
Ordutegia: 09:00-14:00, astelehenetik ostiralera.

Izena emateko epea: urriaren 24ra arte.
Informazioa gehiago: Durangaldeko Behargintzan.

Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 DURANGO Tel.: 946 232 522
Ordutegia: astelehenetik ostegunera 8:00etatik 15:00etara
www.mdurango.org

Elkarretaratzeak Abadiñoko eta Durangoko erasoak salatzeke

Genero indarkeria kasu bi salatzeke, elkarretaratzeak deitu zituzten atzoko



Andereak elkarretaratzeak deitzen du eguenero, genero indarkeria salatzeke. Andereak.

DURANGALDEA J.G.

Atzokoa genero indarkeriaren kontrako protesta eguna izan zen Durangaldean. Emakume mugimenduek elkarretaratzeak deitu zituzten atzoko, Abadiñon eta Durangon, Durangaldeko bi herri horietan azken bi asteetan gertatutako emakumeen aurkako erasoak salatzeke.

Abadiñon, Txanporta plazan elkartu ziren, atzo, 19:00etan. Herriar ugari Abadiñoko neska adingabe batek jasandako erasoak salatu gura izan zuten. Ertzaintzak jakinarazi duenez, urriaren 8an 40 urteko gizon bat atxilotu zuten erasoak egitea egotzita. Gaineratu duenez, epai-

learen aurretik pasatu eta gero, aske geratu da.

Durangon ere eraso sexista bat salatu zuten San Fausto egunean. Ertzaintzak baieztatu duenez, gizon bat atxilotu zuen Udaltzaingoak, bere bikotekideari eraso egin izana egotzita. Erasoa gaitzesteko elkarretaratzeak deitu zuen atzoko Andereak elkarretatik, Andra Marian, 20:00etan. “Ez gaude erasoak jasaten dituzten biktimak erruduntzat hartzea onartzeko prest, ez eta ahoa itxia izan dezaten jasotzen dituzten mehatxuak onartzeko ere”.

Abadiñoko eta Durangoko udalek erasoak gaitzesteko komunikatu bana onartu dute,

eta babesa erakutsi diete erasoak jasan duten emakumeei.

Arosamenaren kasua

Andereak elkarretatik 2012an Durangon bosgarren pisutik jausita hil zen Gabriela Arosamena emakume perutar gaztearen kasuko informazioa jakinarazi du: “Arosamena giltzapetuta zeukan mutila kartzelaratu egin dute”. Andereak dioenez, “mutilak legez kontrako atxilotagatik bost urteko kartzela zigorra jaso duela-eta, herritar askok erasotzailea justifikatu egiten du, eta biktima erruduntzat jo. Antza denez, Abadiñoko kasuan ere, antzeko zerbait gertatzen ari da”.

Garai, margolari baten begiradatik

Fernández Paizek herria koadroetara eroan du

GARAI Markel Onaindia

Zubiaurre anaia margolariak koadroetan eta argazkietan irudikatu zuten Garai duela mende bat pasatxo. Lan artistiko horren eraginak bizirik jarraitu du, eta azken hamarkadetan zenbait artistek bide beretik jo dute. Gontzal Sarrigoitia alkateak azaldu du 1990 bueltan etorri zela lehenengo margolaria. Egun batzuetan Garaiko txoko eta paisaiak margotzen ibili zen, eta Elizabarriko sakristauaren etxean lo egiten utzi zioten. Trukean, koadro bat herrian geratzea adostu zuten. Bada, orain, Javier Fernández Paiz bilbotarra izan da Garain, herria koadroetara eroaten.

Abuztuaren etorri zen egun batzuk pasatzera Fernández Paiz. Ikasturtea Madrilen eman ostean, udan Garaira etorri, eta “aldaketa erradikala” izan zela esan du, baina sormenerako natura du gustuko. Zazpi margolan sortu zituen: mendiak, etxeak eta herriko ikuspegi orokorrak islatu zituen, adibidez. Gehienek “ukitu atmosferikoa, lausotua” dute, bere esanetan.

Duela astebete berriro egon da Garain, eta marrazki batzuk landu ditu. Bere obra urriaren 26an erakutsiko du, eta salgai ere egongo dira lanak. Agian beste sasoi batean bueltatuko da: “Elurra egitean oso polita izan behar du Garaik”.



Fernández Paiz, Anboto protagonista duen koadro batez.

Gaztetxoak ibili dira gehien igerilekuetan

Udalak Elizaldeko igerilekuen harrera baloratu du

ELORRIO M.O.

Irailan amaitu zen udako igerilekuetako denboraldia, eta Elorrioko Udalak Elizaldeko instalazioek edukitako harrera baloratu du. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, umeak eta gaztetxoak, 18 urtez azpikoak, izan dira igerilekuak gehien erabili dituztenak. Uztaila, abuztua eta iraila kontuan hartuta, 10.000 txartel inguru saldu dituzte, eta uda osoan 1.200 bonu egin dituzte. Guztira, 22.000 bat sarrera eduki ditu instalazioak.

Udal gobernuko kideek esan dute iraileko lehenengo hamabostaldian batu zela jende gehien. Hala ere, uztailaren 31 izan zen egun arrakastatsuen, 870 lagun hurreratu ziren eta.

Aurten inauguratu dituzte igerilekuak, eta ordezkarien ustez, herrian aldaketa igarri da:

“Instalazioen irekierak ohitura aldaketa eragin du elorriarren artean, eguraldi onaz gozatzeko aukera izan dutelako, hondartzara edo beste igerileku batzuetara joan behar izan barik”. Instalazioak kalitatezkoak eta

Uztaila, abuztua eta iraila kontuan hartuta, 10.000 txartel inguru saldu dituzte

gazteak erakartzeko modukoak egin gura izan dituzte.

Azaldu dutenez, erabiltzaileek igerilekuen balorazio ona egin dute, eta turistak ere erakarri dituzte. Gainera, hogeitau lanpostu sortu izana nabarmendu dute.

Bizikletentzat eta oinezkoentzat hainbat bide markatu dituzte

IZURTZA Joseba Derteano

Joan zen astean, udalaren ekimenez, bide ondoetan bizikletentzako zein oinezkoentzako hainbat bide markatu zituzten. Alde batetik, herrigunetik Bitañora doan bidea markatu zuten. Bide horretan lehendik ere bazegoen bidexka markatuta. Orain berriro pintatu dute zuriz, hobeto ikusi dadin; era berean, bazegoen zati bat markatu gabe, herriguneko semafororaino zihoazen azken 50 bat metroak, hain zuzen, eta tarte horretan ere bidea margotu dute. Katia enpresatik Zubietara dagoen bidegorriaren ondoan ere markatu dute bidexka. Horiekin batera, txaletetatik Uresandiko zubirainoko bidea markatu dute; baita Santo Tomas ermita ingurutik Arbizoleako industriagunean dagoen zubiraino ere.

Igerilekuetara joan direnei diru-laguntzak

Udaletxean eskuratu daiteke eskabide-orria

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Zaldibarren erroldatuta egonez gero, inguruko herrietako igerilekuen erabiltzaile direnei zuzenduriko diru-laguntza emateko deialdia zabaldu du Zaldibarko Udalak. Aurten Abadiño, Berriz, Eibar, Elorrio, Ermua eta Durangoko kiroldegietako igerilekuak erabili dituzten herritarrek egin ahalko dute laguntza jasotzeko eskaria.

Inguruko herrietako igerilekuetara joaten diren zaldibartarrek eskatu dezakete diru-laguntza

Udaletxean eskuratu daitekeen eskabide-orria bete behar du diru-laguntza eskaria

egin gura duenak. Agiria udaletxean aurkeztu behar du NAREN fotokopiagaz eta aipaturiko herri horietako igerilekuetako ordainketen agiriarekin batera. Urriaren 31ra arte dago eskariak aurkezteko aukera.

Azokan parte hartzeko

Azaroaren 16an Euskal Herria kalean egingo duten neguko azokan parte hartu gura duten nekazariak izena emateko epea ere zabalik dago. Urriaren 24ra arte, udaletxean edo 946 827 016 telefonoan, eman ahaliko dute izena Durangaldeko, Lea-Artibaiko eta Busturialdeko nekazariak. Besteak beste, barazkiak eta frutak, okelagaz egindako produktuak, txakolina, ogia, eztiak eta gazta ekarriko dituzte nekazariak azaroaren 16ko azoka horretara.



Euskal Herriko beste herri batzuetan ere antolatzen dira Mintzodromoak.



Mintzodromoa antolatuko dugu lehenengo aldiz Durangon

Ekimenean parte hartu gura duten guztiek izena eman beharko dute urriaren 22a baino lehenago

> DURANGALDEA

Aurten, ikasturteari hasiera emateko, mintzodromoa antolatuko dugu Durangoko Plateruenean. Ordubeteen hiru gairi buruz euskaraz berba egitea, jendea ezagutzea eta euskaraz gozatzea dira ekimenaren helburu nagusiak. Hori guztiori kafe txoko baten inguruan antolatuko

dugu. Gaiak zeintzuk izango diren bertan jakinaraziko dugu.

Nori zuzenduta

Batzilergoko ikasleak, euskaltegiak, berbalagunak eta herritar guztiak daude gonbidatuta mintzodromoan parte hartzera. Hitzordua Plateruena Kafe Antzokian izango da, urria-

Mintzodromoan parte hartzeko euskaraz hitz egiteko gogoia baino ez da behar

ren 29an, eta saio bi izango dira: goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 18:00etan. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute, antolaketa arazoak ekidite aldera. Horretarako, Plateruena Kafe Antzokian, durangaldea@aei.org e-mailean edo 639 400 786 telefono zenbakian izango da aukera, urriaren 22a baino lehen.

Goizeko saioa, batez ere, ikasleei zuzendutakoa izango da. 16 urtetik gorako Durangaldeko ikasleei zabaldu diegu parte hartzeko aukera. Saio hori 10:00etatik 12:00etara izango da.

Arratsaldeko saioa, aldiz, Berbalagun egitasmoa kideei zein euskaraz hitz egiten duen herritar orori egongo da irekita. Saio bietan, bai goizekoan, bai arratsaldekoan, indarrak berrietzeko mokadutxo bat eskainiko dugu. Dena izango da doakoa.

Hiru gairen inguruan euskaraz hitz egiteko gogoia besterik ez da behar parte hartzeko. Jendea ezagutzeko aukera paregabea dugu honako ekimen hau.

MINTZODROMOA

EUSKARAZ BERBA EGITEKO TARTEA

3 gai ordubeteen

euskaraz #lotsarikgabe berba egiteko



Urriaren

29

asteazkena

10:00etan
18:00etan

Plateruenean

Izen-ematea: urriaren 22a baino lehen

Durangaldeko AEK euskaltegia, Durangoko Udal euskaltegia, Hizkuntza Eskolan, Berbaron edo Plateruenean

639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com

durangaldea@aei.org

Durangaldeko berbalagunak

Antolatzaileak eta Udalak

Babesleak



Baserri zaharrenetako bat bisitatuko dute bihar

MAÑARIA Markel Onaindia Europako Ondare Jardunaldien harira, Mañariko historian murgilduko dira bihar. Herriko etxeak izango dituzte ardatz, atzera begirako bisita hori egiteko. Historiaurreko kobetan hasi, eta XX. mendera arte egondako garapena aztertuko dute, Belen Bengoetxea historialariaren eskutik. 17:30ean geratuko dira udaletxeko udalbatzar aretoan. Mañariko etxe zaharrenetako bat den Markue baserria bisitatuko dute, esaterako. Amaitzean, 19:30ean, organo kontzertua eskainiko du bertan Miriam Cepedak.

Bestalde, martitzenean Santa Ursula jaia ospatuko dute mañariarrek. Meza egingo dute 13:00etan, bazkaria 14:30ean, eta erromeria arratsaldean.

Gasteizko lineak aldundien arteko akordioa izatea eskatu du udalak

MAÑARIA M.O.

Joan zen astean osoko bilkura egin zuten Mañarian, eta Durangotik Gasteizerako autobus linearen gaiari buruz eztabaidatu zuten. Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak gaia Euskadiko Garraioaren Agintaritzara (EGA) eroateko konpromisoa hartu zuen, eta erakunde horretako kideei eskaera zuzen bat egin zien udalak: Bizkaiko eta Arabako aldundien arteko hitzarmena bultzatu dezatela. EH Bilduk sustatutako mozioa aho batez onartu zen. Koalizioak azaldu du EGak ez daukala eskumenik, baina eragin handia sortu dezakeela. Linearen aurreproiektuaren baldintzekin herritarrei "garraio publiko duin bat emateko aukera" galduko dela uste du EH Bilduk.

Errementarien sasoiko sukalde bat prestatu, eta erakusketa osatu dute

Urriko barikuetan eta zapatuetan ikusi daiteke sukalde, udaletxeko gela batean

OTXANDIO Joseba Derteano Gerediaga Elkarrekin Durangaldeko hainbat herritan antolatutako ondarearen inguruko jardunaldien barruan, Otxan-

dion errementaritzaren indarrean zegoen sasoiko etxebizitzaren sukalde bati buruzko erakusketa antolatu dute. Urriko barikuetan (18:00etatik 20:00etara) eta

zapatuetan (12:00etatik 14:00etara) dago ikusgai udaletxeko Alondiga gelan.

XIX. mendera arte Erdi Aroko hiribilduetako etxeen



XIX. mendeko sukalde irudikatzen duen erakusketako argazkia.

ezagugarri batek iraun zuen Otxandion: bizitza eta lanbidea leku berean garatu izana. Behealdean eskulangleen tailerrak kokatzen ziren, batez ere errementarienak, eta goiko solairuetan etxebizitzak zeuden. Horrela, XIX. mendeko etxebizitza bateko sukalde bat ikusi daiteke erakusketan. Berori osatzeko altzari eta beharrezko osagai asko Urkiolako santutegiko abadetxetik jaso dituzte; norbanako batzuek ere hainbat tresna utzi dizkiete.

Askotariko tresneria

Erakusketa osatzeko ahalik eta tresneria gehien batzen saiatu dira XIX. mendeko ezkaratz bat ahalik eta ondoen islatzeko. Horrela, besteak beste, ohiko mahaiez eta aulkiez gainera, argi ontzia, txokolate ontzia, lisaburdina, ogi-moldea, lapikoak, sehaska, gorua, karburua, arropak eta beste hainbat tresna eta osagai ikusi daitezke erakusketan. Beheko su bat ere irudikatu dute.

Taxi lizentzia eskuratzeko aukera berberak denentzat

Abadiñarrek lehentasuna izan dute orain arte

ABADIÑO Itsaso Esteban Taxien ordenantzen hiru garren artikulua ezabatzea proposatu zuen Abadiñoko Independenten taldearen udal gobernua iraileko azken martitzeneko osoko bilkuran. Udal gobernua eta EAJk egin zuten proposamenaren alde. Ordenantzatik kendu duten artikulua horrek taxi lizentzia bat eskuratzeko lehentasuna ematen zien abadiñarrei. Aurrerantzean, beraz, lizentzia horiek eskuratzeko aukera berbera izango dute abadiñarrek zein herrikoak ez diren eskatzaileek.

Jose Luis Navarro alkatea argudiatu zuen inguruko herrietako ordenantzetan ez zaiela bertakoei lehentasuna ematen, eta ez dela bidezkoa Abadiñok bereizketa hori egitea.

Bilduk kritikatu egin zuen proposamena, eta artikulua kentzearen kontra bozkatu zuen. Bilduk uste du lehenbizi abadiñarrei eman behar zaiela taxi lizentzia eskuratu, eta lanpostu bat lortzeko aukera. Bestalde, lizentzia eskualdatzeko prozesuetan udalak ere parte hartu beharko lukeela azpimarratu zuen Aitor Azuea Bilduko bozeroaleak. Bere ustez, horrela eginez gero, espekulaziorako aukerak mugatuko lituzke udalak.

Taxi lizentzia eskuratzeko lehentasuna abadiñarrei ematen zien artikulua kendu dute ordenantzatik

Gimnasioa berrituko dute, eta ordainpekoa izango da

BERRIZ Amaia Ugalde

Datorren urterako ordenantza fiskalak onartu dituzte astean, osoko bilkuran. Orokorrean, tasa eta zergak izoztu egingo ditu Berrizko Udalak. Baina 2015erako gimnasio zerbitzuan aldaketak egitea eta gimnasioari tasak ipintzea adostu dute.

"Kiroldegiko gimnasioak inbertsio berezi baten premia du, eta patxadaz ekipatu behar dugu", azaldu du Orland Isoird alkatea. Orain arte, igerilekuko bonua zutenek doan erabiltzen zuten gimnasioa. Berrikuntzen ostean, honako prezio hauek egongo dira: igerilekuko bonua dutenentzat, urteko bonua 82,60 euro, hiru hilekoa 33,15 euro, hilekoa 17,7 euro eta sesio bakoitza 2,25 euro. Igerilekuen bonua ez dutenek garestiago izango dute.

Hilerriko araudi berria onartu dute, zehaztapenekin

BERRIZ A.U.

Hilerriko araudia onartu du astean Berrizko udalbatzak. "Lehenengo arautegia oso orokorra zen, eta zehaztapen batzuk behar zituen", adierazi du Berrizko alkatea. Aldaketen artean, kasu batzuei erantzuna ematen ahalegindu dira. Orain arte, hilerriko zerbitzua erabiltzeko Berrizen erroldatuta egon behar zen. Nagusien egoitzetan bizi diren berriztarrekin arazoa egon izan da, batzuetan egoitzaren herrian erroldatu behar izaten dutelako. Orain, arrazoi mediko eta familiarrengatik kanpoan hil direnek lekua edukiko dute Berrizen.

Kontzesioak ere zehaztu dituzte. Nitxoak eta hilobiak hamar urterako izango dira, eta hezurtegi eta kolunbarioak 99 urterako.

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO


URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

BERETEK

ARKITEKTO TEKNIKOEN BULEGOA



- Jarduera proiektuak
- Eraikinen patologia txostenak
- Peritazioak
- Legeztapenak
- Birgaitze eta berrizteak
- Obra berriak
- Proiektuak
- Obren zuzendaritza
- Obren gauzatze zuzendaritza
- Hirigintza
- EIT-ITE Eraikinen ikuskapen teknikoak
- EET-IEE Eraikinen ebaluazio txostenak
- EEK-CEE Eraikinen energia kalifikazioak
- Aurrekontuak, neurketak, zuinketak.
- Andamiatzeak
- Kalitate kontrola
- Igogailuak eta plataforma jasotzaileak

Alex Txikonen eta Bihurriren taldeen arteko herri erronka Urriko jaietan

Sati Zitto, Su Ta Gar, Vendetta eta Trikizio taldeak arituko dira urriaren 25ean



Txikonek eta Bihurrik 'Aizkora hotsak goi mendietan' dokumentala grabatu zuten. Bideografik.

MALLABIA Jone Guenetxea Ekitaldiz beteta dator Mallabiko Urriko jaietako egitaraua. Urriaren 24an txupinazoa jaurtita ekingo diete jaiei. Elizpeko pilota txapelketaren finala jokatu ostean, oilasko pintxoak banatuko dituzte plazan. Fredi Paiak eta Beñat Ugartetxeak bertso-poteoa girotuko dute. Gauarako, Euskal Herriko II. nortasun agiri jaurtitze txapelketa prestatu dute, eta baita karoakea ere, Herriko Tabernan.

Datorren zapatu goizean, umeek areto futbol txiki partiduak eta olinpiadak jokatu dituzte. Arratsalderako eta gauerako prestatu dituzte jaietako nobedade nagusiak. Alex Txikon mendizale eta aizkolariak, bere taldeagaz, eta Bihurrik, bereagaz, herri erronka jokatu dute herriko pilotalekuan. Gauean, berriz, ohikoa denez, talde ezagunen kontzertuak izango dira entzungai: Stai Zitto, Su Ta Gar, Vendetta eta Trikizio.

Urriaren 26an, jaien egitarauagaz amaitzeko, gaztetxoek pilota eta pala partiduak jokatu dituzte. Arratsaldean *Zer ete darabil Tomasak* antzezlan eskainiko dute kultur etxean. Ondoren, txokolatadaren inguruan bilduko dira, plazan, eta bertatik buruhandiak irtengo dira.

Gauean autobusak Urriaren 25 gauean Lurraldebussek zerbitzua eskainiko du Mallabi eta Ondarroa artean.

Lehen eta orain, Iurreta 'jantzaria' dela ospatzen

Urriaren batu ziren andre eta gizon dantzariak



Zinta dantzagaz plaza bete zuten dantzariak.

IURRETA Amaia Ugalde Domekakoa egun berezia izan zen iurretarentzat. Azken hila-beteetako entseguek fruitu koloretsua eman zuten dantzarien Urriena jaian. Aurtengo ekitaldian inoiz baino herritar gehiagok parte hartu du, lehenengo aldiz emakumeak ere plazaratu direlako. Dantza egin eta gero jai giroak jarraitu zuen, eta bazkarian 259 lagun elkartu zirela azaldu dute antolatzaileek.

Dantza taldean urte asko egindakoak, umetan ibili eta ordutik hona dantzari jantzia jantzi bakoak... Nagusi eta gazte batu ziren Urrienen. Errepikatzeke, bost urte igaro arte itxaron beharko da.

www.anboto.org webgunean domekako argazkiak ikusgai.

Euskal zeramika ontziei buruzko berbaldia domeka honetan

IURRETA A.U.

Europako Ondarearen Jardunaldien barruan, Euskal Herrian janaria prestatu eta elikagaiak batzeko erabili izan diren zeramika ontziei buruz gehiago jakiteko aukera egongo da Iurretan. Domekan, 12:00etan, berbaldia emango du Blanca Gómez de Segurak, Euskal Buztingintza Museoko arduradunak. Ibarretxe kultur etxean izango da hitzordua.

Euskal Herriko ezkaratzen egunero erabili izan den zeramika herrikoia estetikak jakina izan du. Izan ere, kultura bakoitzean bere berezitasunak izaten ditu zeramikak. Gómez de Segurak historian ontzi horiek izan duten bilakaerari buruz berba egingo du domekako hitzaldian.

Obrak egin dituzten auzo komunitateentzat diru-laguntza

IURRETA A.U.

Igogailuak jartzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko, fatxadak berritzeko eta teilatuak konpontzeko, diru-laguntza eskatzeko deialdia egin dute.

Azken urtean lanak egin dituzten auzokideek urriaren 24ra arte eskatu dezakete diru-laguntza

Azken urtean horrelako lanak egiteko obra lizentziak lortu dituztenek izango dute laguntza jasotzeko aukera. Urriaren 24ra arte egin daitezke eskariak.

Laguntza horietarako 43.500 euroko diru atala gorde dute aurrekontuetan.

SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



Nahikoa da

Ez dakit zer gertatzen den azkenaldian, baina gizartean gero eta gehiago kezkatzen gaituzten gertakariak ari gara pairatzen. Eguzkia ala euria ari, jaiak izan ala ez, zoritxarrez, egunerokasun bilakatzen dabilzan kontuez ari gara.

Nahikoa da! Animaliak ezin dira ikusikizun gisa erabili. Hau diogunean ez gabilta Zezenak Dira bezalakoez, horrek beste eztabaida sakonago bat duelako. Jaietarako muntatu duten zezen plazaz ari gara, non errektadoreek bigantxak erabiltzen dituzten dibertitzeko, ikusikizun hauek animalientzat zer suposatzen duten kontsideratu barik. Animaliak txotxongilo legez erabiliak izaten dira. Zoritxarrez, aurreko larunbatean bigantxa bat hil zen, publiko guztiaurrean, jaso zuen kolpe baten ondorioz. Tentsioz eta tristuraz beteriko une bat izan zen. Animaliekiko sentsibilitate handiagoa izan beharko genuke, eta era horretako ikusikizunak ez genituzke bultzatu behar, ere gutxiago kontratatu.

Nahikoa da! Gertatzen ari diren eraso sexista eta sexualen aurrean, aski dela esan behar dugu. Durangon, aste honetan beste eraso sexista bat izan dugu. Abadiñon ere eraso sexualak salatu dituzte hiru emakume. Gizarte honetan egoera, hobetu baino, txarrera doala dirudi. Erasotuak diren emakumeak salatu egin behar dute, guztion babesa daukatelako, eta udaletik ere gure esku dau den baliabide guztiak jarriko ditugu erasotua den ororentzat. Jarrera matxistekin bukatu beharra daukagu. Errudunak ordaindu dezala. Erasotuen aurrean kalera irten eta salatu egin behar dugu. Ezin gaitetzke geldieratu.

Erasorik ez erantzunik gabe!

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
BELTZURIA
Ixiar Rozas (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT
DUMITRU
Koldo Izagirre (2014)

MUSIKA
POPULAR PROBLEMS
Leonard Cohen (2014)

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Adinekoen euskara eta bizipenak jaso, eta denen eskura ipini dituzte

Ahotsak proiektuaren emaitzak argitaratu dituzte



Atzoko aurkezpenera batutako adineko elkarrizketatuak Nerea Goiriagaz.

ZORNOTZA J. Derteano

2003n hasitako Euskal Herriko Ahotsak proiektuak edadeko jendeari elkarrizketak bideoz grabatzea, eta beren pasarte, ohitura eta berbakerak webgune batean denen eskura jartzea du helburu, ondare hori galdu ez dadin. Orain arte 284 herri-tako testigantzak jaso dituzte, tartean Zornotzakoak. Zornotzan egindako lanaren emaitzak eguaztenean aurkeztu zituzten Zelaieta zentroan, proiektuan parte hartu duten hainbat adineko bertan zirela.

Ahotsak proiektuaren webgunean (www.ahotsak.com) Zornotzako 135 pertsonari egindako elkarrizketak daude; horietako 34 Ahotsak egitasmoaren barruan egin dituzte, baina badira aurretik egindako beste

hainbat grabazio, eta horiek ere eskuragarri daude; esaterako, Luis Mari Gerediagak orain hogeitazorteko urte baino gehiago Zornotzako aditzak jasotzeko edadekoei egin zizkien elkarrizketak ere entzun daitezke: “Grabazio baliotsuak dira, hikako hizkera entzun daitekeelako; gaur egun nork egiten du hika?”, adierazi zuen Nerea Goiria proiektuaren sustatzaileetako batek. Guztira, Zornotzako 712 pasarte jaso dituzte (300 bideo eta sei audio), eta pertsona bakoitzak bere fitxa du oinarritzko datuekin.

Eguaztenean aurkezpen ekitaldian elkarrizketatuak izan diren 34 adinekoek euren grabazioak jaso zituzten opari David Latxaga alkatearen eskutik, eta euren omenezko bideo lan bat ere eskaini zuten.

Ixer auzoko aparkalekua zabalik dago 146 plazagaz

Aldi bakoitzeko hiru orduz aparkatu daiteke

ZORNOTZA J.D.

Berregituraketa lan guztiak amaituta, joan zen astean ireki zuten Ixer auzoko aparkalekua. Doakoa da, eta 146 plaza ditu.

Astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 22:00etara, eta zapatuetan, 07:00etatik 15:00etara, dago zabalik. Zapatuetan, 15:00ak aurretik erretiratu behar da autoa, domekan aparkalekuan egiten den azokarako prestaketekin hasi daitezten. Era berean, astegunetan, 22:00etarako autoa atera ezik, ezin da hurrengo egunera arte erretiratu. Gaine-

ra, ordutegiak errespetatu ezean, 200 eurora arteko isunak jarriko dituzte. Sarreran gailu bat dago, behar izanez gero, arduradunekin hartu-emanetan jartzeko.

Aparkalekuak txandakatze sistema du, eta gehienez hiru orduz aparkatu ahal da. Ondoren, ezin da berriro aparkaleku horretan aparkatu, harik eta ordu bi igaro arte. Autoen joan-etorri guztiak sistema informatiko batek kontrolatzen ditu. Sarreran geratu egin behar da, kamara batek matrikula jaso, eta denbora kontrolatu dezan.

Euskara Planaren gaineko iritziak jasoko dituzte bihar

EH Bilduk prozesu parte-hartzaile bat hasi du, eta herri batzarra antolatu du zapatu goizerako

ZORNOTZA J.D.

Udaleko Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusia iraungita dago 2011z geroztik. Berri bat egituratzerako orduan herritarren artean prozesu parte-hartzaile bat bideratzea eta iritziak jasotzea garrantzitsutzat jotzen du EH Bilduk. Prozesu hori Elhuyarren bidez bideratuko dela argitu du. Hori dela-eta, herri batzarrera deitu du biharko, 10:00etatik 13:00etara, Zelaieta zentroan. Datozen lau-

bost urteetan euskararen alde zer ekintza egin daitezkeen galdetu, eta proposamenak jasoko ditu. “Euskararen normalizazioa denon ardura da, eta denon artean errazago egingo dugu”, adierazi dute.

Biharko hori ez da izango batzar bakarra, eta beste bat ere aurreikusita dute. Prozesu parte-hartzailea bideratzeko bigarren batzar hori azaroaren 8an izango da, 10:00etatik 13:00etara Zelaieta zentroan.

> DURANGALDEA ASTEON

Aniztasunaren Eskolan, tailerra

DURANGO > *Africa negra. Conocer para convivir* tailerra egingo dute urriaren 23an, Durangon. Durangoko Udaleko Inmigrazio Sailak antolatzen duen Aniztasunaren Eskola programaren barruko bederatzigarren tailerra izango da hori. Diogenes Sabana Bisoko abokatu eta gizarte aholkulariak bideratuko du tailerra.

Bi egunean agortu dira bonuak

ELORRIO > *Dendarik denda* erosketetarako beherapen bonuen kanpainaren “arrakasta itzela” izan dela nabarmendu du Joseba Mujika alkateordeak. Udalak eta EME merkatarien elkarteak bultzatu dute herriko merkataritzari bultzada emateko helburua izan duen kanpaina. Udalak 10.000 euro bideratu du ekimen honetara.

Mugikortasunari buruzko jardunaldia

DURANGO > *Mugikortasun segururako hezkuntza toki-esparrian: bide-kultura eta istripuak prebenitzeko tresnak* izeneko jardunaldietan parte hartuko du Aitziber Irigoras Durangoko alkatea, bihar. EAEko hainbat alkate eta zinegotzi elkartuko dira Bilboko jardunaldi horietan, mugikortasunaz hausnartzeko.

Iritzia



Zorionak 'Ijorreta'!

Aurtengo Urriarena ahaztezina izango da askorentzat.

Segundurik galdu gabe antolatutako photocalla; txilin, tanbolin eta txistu doinuaz lagundutako plazarainoko kalejira alaia; dantza saio hunkigarria; omenaldi zirraragarria... Baina bazkaria eta bazkalosteko giroa deskribatzeko ez dugu adjektiborik aurkitu.

Eskerrik asko egun itzel hori pasatzera bertan batu zineten dantzariok, ikustera hurreratu zinetenoi eta, bereziki, egin duzuen lan guztiagatik, Urriarena jaia antolatu duzuen batzordeko kideoi!

Hurrengo Urriarena jaia hobeto joatea gaitza izango da, benetan!

Amagoia Zuazo, Ziortza eta Esti Aldekoa-Otalora, Miren Abasolo, Miren Arroitauregi, Agurtzane Jaio, Itziar Belar, Leire Areitio, Leire Nazabal, eta beste hainbat eta hainbat dantzari.



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefona • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Blanca Mata | Euskadi Irakurketa Erraza erakundeko kidea | Barakaldo, 1974



“Irakurtzea plazerra dela esaten da, baina eskubidea ere bada”

Irakurketa errazak irakurleen demokrazia eta gizarteratzea duela helburu dio Blanca Matak

> BERBAZ Jone Guenetxea
Irakurketa erraza zer den azaltzera etorriko da Blanca Mata Iurretako Herri Bibliotekako jardunaldietara. Irakurtzeko eta ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak populazioaren %30 direla kontuan hartuz gero, irakurketa erraza erabiltzen duten kolektiboetako profesionalak trebatzea izango da Mataren helburua.

Zer da irakurketa erraza?
Irakurketa edo ulermen arazoak dituzten pertsonen irakurketa hurreratzeko modu bat da. Irakurketa esaten dudanean, bere alderdi guztiei buruz ari naiz: literatura, informazioa edo idatzizko edozein eduki. Irakurketaren demokraziaren printzipioan oinarrituta dago. Hau da, pertsona guztiek kultura eta informazio eskubidea dute. Era berean, kulturaren bidezko integrazio eskubidearen printzipioan ere oinarritzen da. Edukiari dago-kionez, dokumentuak, webguneak edo idatzizko edozein eduki izan daiteke moldagarria.

Irakurketa erraza nori zuzenduta dago?

Populazioaren %30ak ditu zailtasunak irakurtzeko eta ulertzeko, eta horiei dago zuzendua. Zifra hori herrialde garatu askotan daukate. Kolektibo oso ezberdinak daude: zailtasunak beraien bizitzako momenturen batean aldi baterako izaten dituztenak; etorkinak; urritasun intelektuala dutenak; pertsona nagusiak; berandu eskolatutako pertsonak; eta dislexia, PDA edo autismoa dutenak, besteak beste.

Euskadi Irakurketa Erraza erakundeak zelan eman ditu lehenengo pausoak?
EAEn irakurketa errazaren arloan zegoen hutsunea betetzeko sortutako erakundea da. Irakurketa erraza bultzatzea eta horren inguruko zerbitzuak eskaintzea da helburua.

Zelan heldu zinen irakurketa errazaren mundura?
Kazetaria naiz formakuntzaz, eta komunikazioan jardun dut hamabi urtez. Arlo hau kasualitatez ezagutu nuen. Kontzeptua bera ezagutu nuen, eta ikeritzen hasi nintzen. Kataluniagaz hartu-emanen jarri nintzen, gai hau lantzen dihardutelako

azken hamarkadan. Istorio honenkin maitemintzen joan naiz. Euskal Herrian arlo honetan ez denez ezer egin, irakurketa erraza ezagutarazten hasi nintzen, kolektibo askok beharra dutelako.

Irakurketa errazaren barruan erakunde honek zer pauso eman ditu?
Irakurketa erraza arlo guztietan bultzatzea da asmoa, eragile asko inplikaturik. Europa iparraldeko herrialdeak erreferentzia dira 60ko hamarkadatik. 40 urteko esperientzia dute gai honetan. Gure kasuan, urte bi daramatzagu irakurketa erraza lantzen. Alde batetik, liburutegietara heltzen saiatzen gabilta. Eta, bestetik, argitaletxeetara heldu gura dugu, nobelak formatu honetan landu ditzaten.

Irakurketa erraza zergatik da hain ezezaguna hemen?
Europa iparraldeko herrialdeek ongizate gizartea garatuago dute, eta irakurketaren eta hezkuntzaren arloan aurreratuago daude. Hasieran, herrialde horietan irakurketa erraza sortu zutenean, urritasunen bat zuten

kideez osatutako taldeei zuzendua zegoen. Ondoren, konturatu ziren beste askorentzat ere abantaila izan zitekeela. Nik uste dut gobernuan dauden alderdien inplikazio mailak eragina duela. Suediako parlamentuan, esate baterako, ez da dokumentu bat ere irteten hizkuntza lauaren inguruan diharduen batzordetik pasatu barik. Irakurketa erraza

“**Irakurketa erraza arlo guztietan bultzatzea dugu helburu**”

lantzen duten egunkariak ere badituzte. Gardentasunaren eta informazioaren irisgarritasuna oso lotuta daude. Irakurketa plazerra da, baina eskubidea ere bai. Literatura mundu guztiak gozatzea oso barneratuta dute Suedian, eta ideia hori hona 40 urte beranduago iritsi da. Gainera, lehenengo Kataluniara heldu da. Irakurketa erraza asko erabili izan dute katalana irakasteko. Era berean, urritasun

intelektualaren arloan zer edo zer landu dute arlo honetan, baina inguru horretarako bakarrik landu dute.

Irakurketa erraza arlo askotan aplikatu daiteke.
Bai, pisuen salerosketa kontratuak irakurketa errazera moldatu ditugu etxe agentzia batentzat. Informazioa errazteko erronka duen jendea badago. Erakunde publikoak ere inplikatu gura ditugu testu lauak lantzeko. Gasteizko, Bilboko eta Barakaldoko udalek, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek honen inguruko mozioak onartu dituzte.

Dokumentu asko hizkuntza lau horretan irakurtzea edonork eskertuko luke.
Irisgarritasunagaz gertatzen den moduan, urritasunen bat dutenek arrapalak eta igogailuak beharrezko dituzte, baina besteoi ere ondo etorri dakizkiguke. Irakurketagaz berdin gertatzen da.

Sare sozialetan eta informazioan oinarritutako gizarte honetan, informazioa heldu, eta informazio hori ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak zelako egoeran daude?
Gure gizartean informazio asko dugu eta bertara heltzea erraza dela uste duen jendeagaz egiten dute topo. Baina irisgarritasun horrek ez du esan nahi informazioa heltzen zaienik. Webgune bat nabigatzeko oso erraza izan daiteke, baina edukiak ez badira ulergarriak berdin-berdin jarraitzen dute. Amorrua ematen du, askorentzat sinplea dena beraientzat ez delako horrela.

Liburutegiek zabalkundea eman diezaiokete?
Liburutegi batek ezin ditu liburu hauek eduki, eta beste ezer ez egin. Material hori irakurriko duen kolektiboengana jo behar du informazioa zabaltzeko. Ildo horretatik Iurretako liburutegia lan ona egiten ari da, eta kolektibo horietan diharduten profesionalekin jardunaldiak antolatuko ditugu.

Euskarazko irakurketa errazik badago?
Apirilean Gaumin argitaletxeak euskarazko lehenengo lau lanak kaleratu zituen. Bi itzulpenak dira, eta beste biak irakurketa errazean oinarrituta idatzi dituzte. Fernando Morillo idazleak eta Ander Izagirre kazetariak idatzi dituzte.

Aikoren erromerian batuko dira dantzazaleak, Plateruenean, etzi

Joan zen astean egin zuten ikasturteko lehenengo dantzaldia, Durangon



Ikasitakoa praktikara ekartzeko aukera izaten dute parte-hartzaileek erromerietan.

> DANTZA Itsaso Esteban Durangoko Plateruenean erromeria izango dute, urriaren 17an, 18:00etatik aurrera, Aiko taldearen eskutik. Parte hartu nahi duen edozeini dago zabalik erromeria hori; bai dantzan

trebatutakoei, bai lehenengoz dabiltzanei ere.

Joan zen astean abiatu zuten Platerueneko dantzazaleek ikasturte berriko Aikoren ikastaroa, baina asteroko hitzorduen osagarri antolatzen dute, hilabe-

tean behin, domeka honetakoa bezalako erromeria bat. Ikasturtean ikasitakoa praktikara ekartzeko aukera izaten dute parte-hartzaileek nahiz dantzazaleek, zuzeneko musikaren erritmora.

Joan zen martitzenean egin zuten 2014-15 ikasturteko lehenengo saioa. Aurtengo ikasturtean, martitzenetan elkartuko dira, astero, dantza tradizionalak ikasi nahi dituztenak, eta horiez gozatu nahi dutenak.

Bi taldetan, bi mailatan

Josu Garate dantzaria da Aikok Plateruenean izaten duen irakaslea. Bi mailatan aritzen dira parte-hartzaileak martitzene-tako saio horietan: hasiberriak 18:30etik aurrera, eta esperientzia dutenak, ondoren, 20:00etatik 21:30era.

Esperientzia probatu gura dutenek doan jarduteko aukera izango dute hil honetan. Izena eman nahi dutenek, berriz, hiru bide dauzkate: www.aikotaldea.com webgunea, bulegoa@aikotaldea.com helbidea edo 634 423 539 telefono zenbakia.

Seigarren urtea da Aikok dantza ikastaroak Durangoko Plateruenean eskaintzen dituela; Bilboko Erribera merkatua bezala, dantzazaleen topagune bilakatu da, dagoeneko, Durangoko Kafe Antzokia ere.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Barbaroko kidea



Jai giroan

Bisitari japoniarrak

Bariku arratsaldea Pinondoko begirategian. Txupinazorako pare bat ordu. Japoniar talde bat argazkiak eta bideo-zatiak egiten jaietako kultur ondarearen erakinei eta haren azpiko tramankuluei. Batek batera atera gura ditu argazkian arku biak, Santa Anakoa eta jan-edanetarako eregi dutenetako bat. Atzera-aurrera batzuk egin ostean, badirudi lortu duela, eta irribarre egin dio lagunari. Gero aterpera sartu da alboko parafernalia betikotzeko, erakusketa egin behar baitu bere herrialdeko ez dakit nongo galerian. Taldeko gidariari *Euskal presoak* *Euskal Herrira* hitzek zer esan gura duten galdetu dio; argazki oinerako izenburu bitxia begitandu zaio.

Txorizoa

Egunaren hondarrean, lagunartean, tabernan, nekeak bazter batera beharturik. Lagunetako bat barrara hurreratu da; alboan, pintxoei begira daude algará batean andrazko bi; batak besteari Cervantesen hizkuntzan: "Txorizo tx-egaz, hau barrregarria, beste *chorizo* klasetik bereizteko agian?".

Txosnafobia

Hiri zaharra etsaien oldarraldietatik babesten zuen harresitik kanpoaldean kanpatuta daudela dirudi, eraso egiteko prest. Aztarnak baino ez, orde; ez harresirik, ez muga-marra nabarmenik, nork bere buruari jartzen diona baino. Askok dira *txosna* berba aipatze hutsaz gaixotzen direnak, beste askok nahita saihesten dute. Gunea zapaltzeak oinetakoak zikintzeaz gain, batek daki bestelako kalterik ekar lezakeen.

San Agustín parean *Alde hemendik* kartela ikusi du aitak; alabari esan dio hor zikinkeria eta zarata baino ez dagoela. Eskutik oratu, buelta eman, eta zezenketara gonbidatu du.

> KRONIKA BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2014, GALDAKAOKO KANPORAKETA

> AMAIA UGALDE

Ehiza sasoia hasi dela-eta, alboan zituen "bost txoriak ehiatzera" zihoala esanez hasi zuen Beñat Ugartetxeak txapelketako lehen kanporaketa. Amaieran, kartutxoak ia kale egin ziola bota zuen: "Baina hurrengo ehiza egunera / noa txakur eta guzti / pajarok prestatzen hasi". Puntu gehien berak lortu zituen, eta azaroaren 30ean Urdulizen jokatu den finalaurrekora sailkatu da bertsolari mallabitarra.

Distira larregi barik joan zen saioa. Josi da txapelketako leloa, eta jostun lanetan Ugartetxeagaz batera Ibon Aguriagojeaskoa, Julen Erezuma, Garikoitz Sarriugarte, Iñaki Iturriotz eta Aitor Bizkarra ibili ziren. Hona hemen puntuazioa: Ugartetxeak 372,5; Aju-riagojeaskoak 366,5; Erezumak 356; Sarriugarte 354; Iturriotzek 337,5; eta Bizkarrek 316,5.

Ugartetxea, finalaurrekoetarako txartela jaso duen lehen 'jostuna'

Josi lelopean, domekan hasi zen txapelketa, Galdakaoko Torrezabal aretoan



Arreta Durangaldeko bertsolariengan ipiniz gero, Sarriugartek eta Bizkarrek aita-semeen paperean egindako ofizioa aipatu behar. Sarriugarte, aita, sukaldari iaioa,

semeari errezetak irakasteko prest zegoen, baina Bizkarrek, ikasteko asmo handirik ez. Sarriugartek ondo erantzun zion: "Bakarrik bizitzea / tokau leike hamen / amantal bigaz

nator / zugana nabarmen / arrautza bi prijitze / kapaz ete zaren".

Aitor Bizkarrek ideia on batzuk bota zituen arren, urduritasunagatik-edo, ez zuen eskualdeko txapelketan erakutsitako maila lortu.

Ugartetxeak zortziko txikian ale politak eskaini zituen, Erezuma pisukideagaz batera. Balkoian ortutxo bat ipintzea otu zitzaion mallabitarri, eta Erezumari ideia gustatu ez. Ondo defendatu zuen bere postura: "Guk gehiago denda-tan / ez dogu erosiko" bota zuen lehenik, eta "bertso saioetara / alde egiten badut / iluntzeetan ura / egin iezu zuk" gero.

San Agustínalde, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Khea Ziater
NOT (Never On Time)

Urriaren 31n - 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEAK

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

URRIAK 19 18:00etan DOAN AIKO ERROMERIA	URRIAK 24 22:00etan THE FULL MONTY ANTZERKIA	URRIAK 27 17:00 / 19:00 OLGETAN HAURRENTZAKO EKINTZAK
--	--	---

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Landako etorbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300



Euskal esnea

Eusko Label ziurtagiria duen esne pasteurizatuak Euskadiko ustiategi onenetan du jatorria, eta horietan indarrean dagoen Europako arautegiak eskatzen duena baino kalitate maila handiagoko esnea sortzen da. Goi mailako kalitateko esne gordin hori pasteurizazio izeneko prozesu termikoan sartzen da, eta horri esker gordetzen dira elikagai gisa dituen ia ezaugarri guztiak eta zaporea, ia bitamina eta funtsezko aminoazido guztiak bere horretan gordez. Era horretan, egoera naturalenetik

hurbilen dituen ezaugarriekin iristen da produktua kontsumitzailearengana. Produktu freskoa da, eta, horrenbestez, hotzean gorde behar da.

Horrela identifikatzen da

Elikagai gisa dituen ezaugarriak gordeko dituen ontzian saltzen da esne pasteurizatua, eta Eusko Label ziurtagiriaren ikurra ontzian agertzen delako ezagutuko duzu, hori delako kalitate bikaineko izatearen bermea.



Eztia
Miel

Eztia

Eusko Label ziurtagiria duten eztiak kalitate arloan Europako arautegi tekniko zorrotzetako baten arauak betetzen dituzten eztiak dira. Ezti gordinak dira, pasteurizazio prozedurarik izan ez duten eztiak dira. Ezti gordinak dira, eta, horregatik, beren ezaugarri biologiko eta nutritibo guzti-guztiak gordetzen dituzte.

Ezti freskoak dira, bildu berriak, kalitate handikoak, eta erlauntz txikietan modu tradizionalen ekoiztiak.

Gure lurraldeko klima eta lore aberastasunari

esker, hainbat motatako eztiak biltzen dira kolore eta usain desberdinekin.

Horrela identifikatzen da

Ontziaren etiketa-zigiluan duen Eusko Label ziurtagiriaren ezaugarriarengatik ezagutuko duzu ezti hau. Gainera, etiketa horretan duen zenbakiari esker, erlauntzetik saltokiraino produktuak egin duen ibilbide guztia ezagutu ahal izango duzu.

Atzealdeko etiketan uzta adierazten da, eta hori freskotasunaren adierazgarri den datu bat da.

Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkartearen ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, anboto@anboto.org helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzeko aukera duzu; ANBOTOrri babesa emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@ anboto@anboto.org	☎ 946 816 558	✉ Izen-deiturak _____ Helbidea _____ Herria _____ Posta kodea _____ Telefonoa _____ Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
--	------------------------------------	---



Anbotoren lagunen artean Eusko Label produktuen otzarak zozkatuko ditugu

anboto
Lagunak



anboto

Iñigo Roque Eguzkitza | Itzulpengintzako Euskadi sariaren irabazlea | Barakaldo (Zornotzan bizi da), 1976

“Urte eta erdiko lana izan da, semea oheratutakoan, desorduetan egindakoa”

Lobo Antunesen ‘A orden natural das coisas’ itzuli du Roquek, ‘Gauzen ordena naturala’ izenburupean



> LITERATURA Itsaso Esteban
Zelakoak izan dira saria jaso zenuenetik honako egunak?
Bakarlana ohituta, ezkututik ateratzearen parekoa izan da apur bat. Bateko eta besteko zorion mezuak gustura hartzen dira, jakina. Sari bat jasotzea beti da pozgarria, ageriko plazara ateratzeak dakartzan eginbeharak gorabehera.

José Saramagok idazleez esaten zuen bezala, itzultzaileen arorik oparoena ere 50 urtetik aurrerakoa izaten dela irakurri dizugu. Baina askoz lehenago jaso duzu saria. Zer da Euskadi saria itzultzaile batentzat?
Bitxia da Saramago aipatzea, ezinikusi handia zegoelako Lobo Antunesen eta bere artean. Gainerakoan, euskal itzultzaile

le batentzat esan liteke ez dagoe la sari handiagorik, eta aurreko sarituen zerrenda ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Lobo Antunes portugaldarren ‘A ordem natural das coisas’ liburuaren itzulpena saritu dizute. Zelan sortu zen lan hori egiteko aukera?
Urte asko dira Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak Literatura Unibertsala bilduma abian jarri zutela. Aldiro lehiaketa antzeko bat antolatzen dute itzulpenak nori eman erabakitzeke. Lagin bat aurkeztu nuen, eta aukeratu egin zuten.

Zer duzu gogoko Lobo Antunesen idazkeratik?
Lobo Antunesen helburua beti

izan da erabateko eleberria idaztea, eta bilatze horretan emandako beste pauso bat da liburua. Erakargarriena da, idazle handi gehienek moduan, giza izatea hobeto ulertzen laguntzen digula, errealitatea eta ametsak, eta iragana eta oraina nahasita.

Zenbat denborako lana izan da liburu hau itzultzea?
Urte eta erdiko lana izan da. Iluntzeetan, semea oheratutakoan, desorduetan egindakoa. Zirriborroa prestatu, hura orraztu, jatorrizkora bueltatu...

Lobo Antunesek berak esandakoa omen da itzultzea idaztea dela, liburuaren bertsio berriak sortzea.
Bai, liburuaren hitzaurrean nioenez, itzulpen posibleetako

bat da hau, nirea; nik neuk ezin egin nezakeen lan hoberik, gaur-gaurkoz behintzat. Sortzetik badi itzultzeak, baina gehiago imitaziotik, zuretik ezin duzulako ezer erantsi, idazlearen ondare estilistikoan sartzen ez bada.

Euskadi sarietako epaimahaiak landu duzun jatorrizko testuaren zailtasun formalak aipatu ditu. Zeintzuk izan dira zailtasun horiek?
Liburuko atal guztiak barne bakarriketarako dira, kontzientziaren etorriari jarraitzen diotenak. Horrek hankaz gora jartzen ditu hainbat konbentzio: puntuazioa, mintzamoldeak eta narrazioaren haria, esate baterako. Beraz, zailtasuna, hizkuntzatik bertatik baino, idazlearen estilo berezitik etorri da.

Itzulpena egiterakoan “arrisku eta libertateak” zelan kudeatu dituzun ere azpimarratu dute. Euskal irakurleak literatura liburu bat hartuko du eskuen artean, itzulpena den ala ez begiratu barik. Irudipen hori sortzeko hartu beharreko arriskuak izan dira nik hartutako guztiak; ez nik gurata hartutakoak, ezpada irakurlearen alde egindakoak.

Fernando Pessoaen poesia ere itzuli izan duzu. Zaila da poesia itzultzea?
Poemek, eleberrien aldean, badute abantaila garbi bat: luze-laburra. Errimak, neurriak, musikaltasuna... Aintzat hartzeko osagai gehiago daude jokoan poesian; nahiz eta Antunesen prosan ere musikaltasunak garrantzi handia duen, prosa lirikoa esaten zaion hori dela-eta.

Zergatik ikasi duzu portugesa?
Gure aita izan zen haren familian portugesez berba egiteko gauza izan ez zen lehenengoa, eta ni, beti hizkuntzen zale izan naizenez, urteak dira Portugalgo literatura eta paisaietara hurreratu nintzela. Lankide batek behin galdetu zidan: “Portugesez dakizula? Zertarako?”. Hara, orain erantzun diezaioket.

Ingelesetik ere itzuli dituzu lanak. Francis Scott Fitzgerald idazlearen ‘Plazeraren gau ilunekoak’ azkena.
Itzulpen hori berezia izan zen, Garazi Arrularekin batera egin nuen eta. Bakarrik ez jarduteak berezi egiten du lana. Uste dut emaitza ikusgarria izan dela. Tamalez, oharkabean pasatu da; ikaskizun ezin zorrotzagoak dauzka liburu horrek nork irakurriko zain.

Zer daukazu orain esku artean?
2015ean beste itzulpen bi aterako dizkirate: Sophia de Mello-oren poemen antologia bat, eta Rudyard Kipling-en *Errege izatekoa zen gizona* eleberria. Ezin geldirik egon, goroldioa batuko zaidan beldurrez.



MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua industriagunea, 66
Tel./Faxa: 946 827 890
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresa

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com



Boleibol taldean dabilzan senior eta kadete mailako neska batzuk, martitzeneko entrenamenduan.

Boleibola suspertzeko, Sapuherri taldea berreskuratu dute hainbat neska gaztek

Ia 40 neska gaztek osatzen dute Sapuherri-Kurutziaga taldea, eta senior mailako taldea berreskuratu dute

> BOLEIBOLA Markel Onaindia Sarea ipini dute, eskumuturrak berotu dituzte, eta baloia astintzen hasi dira Sapuherri-Kurutziaga boleibol taldeko neskek. Asteazkenetik elkartzen dira boleibolean jokatzeko. Kirol horrekiko zaletasuna zeukaten, eta, batzuen artean berba egin ostean, taldea sortzea erabaki dute. Eurei zirikatzen ere

ibili da Benja Legarra, urte askoan boleibolaren munduan ibilitakoa. Suspertzeko beharra ikusten zuen. “Bestela, Euskal Herrian galdu egingo da, eskola kirol hutsean geratuko da”.

Badira ia hamar urte Sapuherri boleibol taldea desegin zela. Orduan mutilek osatzen zuten senior mailako taldea, baina errelebo falta eduki zuten, eta,

pixkanaka, taldekideek boleibola utzi zuten. Orain neskekin egin dute taldea berreskuratzeko apustua. Legarrak azaldu du horren arrazoia: “Mutilekin gero eta zailagoa da”. Bere ustez, gaur egun kirol guztietan dabil mutil gutxiago, eta gero eta gehiago dira neskek. Mutilek futbolera jotzen ei dute, batez ere, bere arabera.

Taldea apurka-apurka sendotzen joan gura dute. “Hau epe luzerako proiektua da”, esan du Legarrak. Sapuherri-Kurutziaga izena hartu dute, ikastolan entrenatzen dutelako eta taldekide askok bertan praktikatu izan dutelako boleibola, eskola kirolean. Hogeitaz daude kimu mailan, hamaika kadeteetan, eta zortzi seniorretan.

Ondo pasatzeko

Irati Berasategi, Idoia Castillo eta Jone Uribebarrea dira senior mailako taldea osatzen dutenak hiru. Berasategik dioenez, eskola kirolean piztutako zaletasunak eroan ditu taldea sortzera. “Betidanik jokatu izan dugu. Urte pare bat talde barik egon gara, eta aurreko urtean bueltatzea pentsatzen egon ginen, boleibola faltan botatzen genuelako”. Talde kirola izateari garrantzia eman dio Castillo: “Denbora asko igarotzen dugu batera, eta helburua ondo pasatzea da, gehienbat”. Berasategik ere aisialdirako aberasgarria

dela uste du: “Beste guztia ahazteko leku bat da”.

Disfrutatzeaz gainera, partidua jokatzeko hasiko dira. Euskal Herriko Ligan parte hartuko dute, eta gaur egingo dute debuta. Nafarroako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hamaika taldek osatzen dute txapelketa. Edozelan ere, ez dute

Hogeitaz daude kimu mailan, hamaika kadeteetan, eta zortzi seniorretan

lehian pentsatu gura. “Ez dugu espero irabazterik, ahal duguna egingo dugu”, adierazi du Uribebarreak. Batzuk sei urtez daude partidurik jokatu barik, eta, lehiakideekin alderatzerakoan, hori kontuan hartu behar dela uste dute. Beraz, kirola egin, eta ondo pasatzera joango dira Sapuherri-Kurutziagako neskek.

Senior mailan zortzi daude, taldea osatzeko behar den gutxienezkoa. Horren ondorioz, entrenatzeko-eta, gaztetxoekin batu behar izaten dute sarritan. “Nagusiekin nahiko justu gabilta, eta baten bat animatzen bada, hobeto. Gero eta gehiago izan, hobeto”, esan du Legarrak.



Benja Legarrak batera entrenatzen dute neskek.

Pilotarien mugimenduak grabatu ostean, digitalizatu egingo dituzte

Pilotariek pilota jotzerakoan jartzen dituzten jarrerak eta darabiltzaten mugimenduak digitalizatzeko egitasmoan parte hartu du Mikel Gonzalezek



Mikel Gonzalez berriztarra, sentsoreak ipinita dituela, pilota astintzen.

> PILOTA Joseba Derteano Europako hainbat kirol tradizionaletan erabiltzen diren mugimenduak digitalizatzeko egitasmoan parte hartu du Mikel Gonzalez pilotari berriztarra, Oxfordeko Audiomotion estudioetan. Esku pilotaren ordezkari lez joan da; beragaz batera zesta-punta, pala eta paleta gomako pilotariak ere joan dira.

Europako Batasunak bi milioi euro inbertitu ditu proiektu

honetan, eta Gipuzkoako Vicomtech-ik4 enpresa da koordinatzailea. Pilota modalitatez gainera, adibidez, hurling edo futbol gaelikoa ere badago proiektuaren barruan. Urriaren 6an eta 7an izan ziren Oxforden euskal pilotariak. Gorputz osoan sentsoreak jarri zizkieten, mugimenduak harrapatzeko. Pilotako mugimendu guztiak –sakea, dejada eta gantxo, esaterako– behin eta berriro

errepikatu zituzten emaitzagaz gustura geratu arte. Ondoren, puntako teknologiaren bidez, hiru dimentsioko irudi grafikoak egingo dituzte, eta kirol elkarteentzat eskuragarri egongo dira. Gainera, kostu baxuagoko sistema eta software ireki bat garatzen ari da Vicomtech-ik4, kirol elkarteek erabili dezaten. Horrela, pilotarien mugimenduak grabatu eta alderatu egin ahalko dira, jarrerak hobetzeko.



Quincocesek eta Osak irabazi dute Anboto Kilometro Bertikala

> KORRIKA

Joan zen zapatuan jokaturako Anboto Kilometro Bertikala mendi proba Nahia Quincoces mendexarrak (52.22) eta Aitor Osa itziartarrak (39.53) irabazi zuten. Euriak lokaztutako ibilbideari aurre egin behar izan zioten parte-hartzaileek.

Emakumeetan bigarren denborarik onena Oihana Azkorbebeitia abadiñarrarentzat izan zen: 53.36. Horretaz gainera, Durangaldeko hainbat partaide izen ziren Atxondoko proban. Sailkapenean eskualdeko lehenengo mutila Arkaitz Munitxa abadiñarra izan da, hamazazpigarren tokian: 48.34.

Aurtengo aldian atxondararren parte-hartze handia egon da, eta herriko lehen ordezkariak ere saritu zituzten. Gizonetan Jon Rodrigo (53.36) eta emakumeetan Garazi Sampedro (1.08.37) izan ziren onenak.

Durangaldeko hamalau pilota klub Bizkaiko Txapelketan

> PILOTA

Bizkaiko Kluben Arteko XXIII. Txapelketa aurkeztu dute asteon. Txapelketa bederatzi modalitatetan eta zazpi mailatan jokatu da. Guztira, 64 klubek parte hartuko dute, eta horietatik hamahiru Durangaldekoak dira: Abadiñoko Atxarte eta Tornosolo, Zornotzako Betiko eta Lagun Onak, Durangoko Ezkurdi eta Pelotazale, Berrizko Oizpe, Zaldibarko Zaldia, Mallabiko Mallabia I, Elorrioko Berriotxo, Otxandioko Iluntxo, Iurretako Olaburu eta Atxondoko pilota taldea. Finalak abenduaren 19, 20 eta 21ean jokatu dira, baina oraindik erabaki barik dago zein pilotalekutan izango diren.

ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto futbol

Hamahiru gehi hamahiru

Hamahiru talde Hirugarren Mailan, beste hamahiru Euskal Ligan eta multzo bi Bigarren Erregionalean (iaz baino bat gutxiago). Ematen du Bizkaiko areto futbolaren zabal-kundeak goia jo duela, eta gero eta talde gutxiago sortzen dela. Durangaldean ez zaigu egoera hori arrotza egiten, eta orain urtebete Abadiñoko Lagun desagertu ostean, aurtun Dantzari taldeak jarraitu dio. Tes-tuinguru horretan eskertzekoa da Elorrioren emakumeen talde bat sortu izana, Sasikoaren maila berean arituko dena. Mallabian kadeteetako taldea gazte mailako talde batek ordezkatu du.

Kezkagarriena da ikustea taldeak ez direla apenas gazteagotzen, eta batez besteko adina gorantz doala urtetik urtera. Filialek talde nagusiko beterranoen etorkizuneko errelebo izan beharko lukete, baina, askotan, talde nagusiko jokalariek osatzen dituzte filialak.

Zein dira arrazoiak? Biztanleriaren zahartze orokorrak izango du zerikusirik, baita talde federatu batean jokatzeko duen kostu altuak ere; horiekin batera, babesle falta, hamai-kako futbola erakargarriago ikusten dela... Areto futboleko elite mailan Euskadiko klub inportanterik ez izateak ez dakit eraginik izango duen.

Hirugarren Mailan talde bi ditugu; Euskal Ligan lau; erregionaletan bederatzi, gazte mailan bi, eta emakumeetan beste bi. Beraz, Euskadiko areto futbolari dagokionez, Durangaldea buruan dago. Baina hori itsuen herrian begibakarra izatearen parekoa da.

**Erredakzioan itzulia*



Bertako okela - Aurretiaz prestatutako janariak





ZURE GORPUTZAK BADAKI DANTZAN

Gu laguntzeko prest gaituzu
AIKO Taldea Zure dantza bidaidea

DANTZALDI IBILTARIA

Bilbo, Donostia, Iruña,
Ondarroa, Durango,
Galdakao, Gernika,
Markina, Sopela

DANTZA IKASTAROA
(URRITIK EKAINERA)

INFORMAZIOA / IZEN EMATEA:

www.aikotaldea.com

 www.facebook.com/aikotaldea

 [@aikotaldea](https://twitter.com/aikotaldea)

aiko@aikotaldea.com

Telefona:

634 423 539



bbk=

BALLET T

UHAÇON
kulturgunea

dantzan.com

donostiakultura.com

KULTURBASQUE
UPV/EHU



Mendi Lasterketen Espainiako Kopa irabazi du David García durangarrak

Krosean ohituago dagoen arren, aurten mendi lasterketetan zentratuta ibili da, eta modalitate horretan Espainiako Kopa irabazi du



David García, Espainiako Kopako lasterketa batean, mendian gora. Aritz Gordo.

> MENDI LASTERKETA J.D.

Gazte-gaztetatik kontuan hartzeko palmaresa osatu du David Garciak (Durango, 1984), kro-sean zein herri lasterketetan; proba horiekin alderatuz gero, mendi lasterketetan hasiberria

da, baina, 4x4 autoen antzera, zoru mota guztiei aurre egiteko kapaz dela erakutsi du. Joan zen asteburuan, Madrilgo El Escorial proban gailendu zen, eta, horri esker, Mendi Lasterketen Espainiako Kopa irabazi zuen.

Iaz, Galdakaoko San Silvestre lasterketan zuntz haustura izan zuen, eta hilabete eman zuen geldirik. Sendatu zenerako amaitzeaz zegoen kros denboraldia. Beraz, mendi lasterketetan zentratzea erabaki zuen. Ez zen izan

bat-bateko ideia, aspalditik zera-bilen buruan mendi lasterketak seriotasunez eta modu jarraituan hartzea. Oier Ariznabarretagaz entrenatzen jardun ostean, ekainean Espainiako Kopako lehen lasterketan (Cercedilla, Madril) parte hartu, eta laugarren amaitu zuen. Gero, iraileko bigarren proba (Belmez, Jaén) irabazi zuen. "Orduan erabaki nuen lasterketa guztietan parte hartzea eta Espainiako Kopa lehietzea", gogoratu du. Zaragozako Lonjas herrian jokaturako hirugarren proban bigarren sailkatu zen, eta txapelketa joan zen asteburuko garaipenagaz errematatu zuen. Mendi lasterketa bat falta da oraindik txapelketa amaitzeko, baina matematikoki berea da txapela.

Mendi lasterketetan jarraitzeko asmoa du, eta datorren denboraldirako helburuen artean du Espainiako Txapelketako podiuma; horrek Europako Txapelketarako sailkapena emango lioke. Aurten laugarren sailkatu, eta atarian geratu da. Gainera, Zegama-Aizkorri lasterketa ere badu helburuen artean. Aurten lehenengoz hartu du parte, eta Durangaldeko aurrenekoa izan da 49. postuan, baina gehiago egin dezakeela uste du. Hitzordu horiek heldu artean, kro-sean jardungo du.

Zesta-puntako final bana gaur eta bihar, Durangon

Jokin Arbe markinarrak final bietan jokatu du

> ZESTA-PUNTA

Durango Euzkurdi Jai Alai pilotalekua zesta-puntako final biren lekuko izango da gaur eta bihar. Gaur, 19:00etan, Jai Alai World Tour egutegiaren barruko II. PRO-AM txapelketako finala jokatu du, eta bihar, 18:00etan, San Fausto Zesta-punta Txapelketako finala.

Gaurko finalean Kevin Ithurria eta Ekhi Aio, eta Jokin Arbe eta Joseba Madarieta neurtuko dira. Ithurriak eta Aio ezustekoa eman zuten finalerdietan,

Mikel Eiguren eta Jon Zabala binakako txapeldunak menderatu zituztelako. Bigarren finalerdian Arbek eta Madarietak Jagoba NARBARTe eta Ibai ERKIAga kanporatu zituzten.

Zapatuan, aldiz, XXXI. San Fausto Zesta-punta Txapelketako finalaren txanda izango da. Arbek final hori ere jokatu du, Jon Zabala bikotea osatuta. Markinarrek Hossegorreko (Frantzia) Lesbats-Etxebarri bikotea izango dute arerio. Markinarrak dira faborito.



Biharko finalean Markinako bikotea da irabazteko faborito.

AGENDA

> PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau 1.erdian: Labaka-Mendi Binaka: Urretabizkaia-Arratibel / Azketa-Aizpurua

· Urriaren 23an, 21:30etan, Zaldibarren.

TORNOSOLO KOPA (trinketea)

- B. Bilbao / Ugarte

- Kuruchary / Gonzalez

· Gaur, 19:00etan, Tornosolon.

- Artuch / J.Bilbao

- Uribe / Etxebarria

- Uriarte / M.Rafael

· Bihar, 11:00etan, Tornosolon.

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Conquense

· Domekan, 17:00etan, Zornotzan.

HIRUGARREN MAILA

Durango Kulturala - Oiartzun

· Zapatuan, 11:30etan, Durangon.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Ezkurdi - Umore Ona

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Bermeo

· Domekan, 18:00etan, Iurretan.

Elorrio - Ariz

· Domekan, 15:30etan, Elorrian.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Zorrotzako

· Zapatuan, 17:00etan, Iurretan.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Gernika Sporting B

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Ostadar

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

EUSKAL LIGA

Mallabia - Bilkoin Legorreta

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

> ESKUBALOIA

BIGARREN ERREGIONALA

Ibaizabal - Askartza

· Domekan, 12:00etan, Durangon.

A. Urreta
podólogo

• Oinetako patologiak
• Neurria egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behe - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

**MARKA GUZTIETAKO
AUTOEN KONPONKETA**
ASEGURU - ETXE GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU - PIEZA ORIGINALAK

ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

ZURE IBILGAILUA AZTERTZEKO 12 ARRAZOI DITUZU



ETA DEN-DENA DOHAINIK.

DOAKO AZTERKETA OINARRIZKO 12 SEGURTASUN OSAGAIETAN:

EGOERA:

1. PNEUMATIKOAK
2. IHES-HODIAN ETA FINKAPENETAN
3. HAIZETAKO-GARBIGAILUAK
4. TRANSMISIO HAUSPOA
5. DIREKZIO-HAUSPOA

LIKIDO MAILEN EGIAZTAPENA:

6. DIREKZIOA
7. BALAZTAK EDO LHM EDO LDS
8. HOZGARRIA
9. MOTORRAREN OLIO-MAILA

ESTANKOTASUNA:

10. MOTELGAILUA
11. MOTORRA
12. ABIADURA-KAXA



%30 EKO
DESKONTUA
BANAKETA-UHAL KIT-EAN

BALAZTA-PASTILLAK, BALAZTA-DISKOAK,
Deskontua ordezeko piezetarako baino ez da (eskulana ez dago bane).



%80 EKO
DESKONTUA
2. PNEUMATIKOAN

MICHELIN GOODYEAR BRIDGESTONE
Continental PIRELLI DUNLOP



IAT AURREKO AZTERKETA
BEREZIA DOHAINIK

ETA
AUTOA GUK ERAMATEN DIZUGU

2014/10/15tik 2014/12/31ra

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA

Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com <http://redoficial.citroen.es/iurreta>

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MONTEVIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelkuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

